

GUaiXE.net



Asto rock jaialdia bihar **Dorraon**, arratsaldetik



Kultura >> 14

Bertso Afari Txapelketa hartuko du **Etxarriko Karrikestu elkarteak gaur**: Txoperen, Iturrio, Arbina, Illaro, Gorosterrazu eta Soto



Kultura >> 14



Urdaingo aurrekontua joan den urteko bidetik

487.000 euro kudeatuko ditu >>9

Bi idazle arbizuar gaztetxo sarituta

>>15

Ikasketa berria LHn

>>9

Ezkurdia, Arbizon, buruz burukoan >>11

Urbasako saroiko siman 10 gorpuzkin opatu zituzten

Arantzadi Zientzia Elkarteak haiek identifikatzeko lanak egiten ari dira >>8



Herri baratzak Altsasun

>>7



Lakuntzan bigarren eskuko azoka prestatzen >>6



Naiara Diezen Obenasak ezin aurrera egin >>12



Etxarriko hirigintza eredua aztergai >>6



Oihanetik itsasora erakusketa ibiltaria atzo mustu zuten >>9

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Nagore, Emilio eta Tomas

ZORIONAK hirukote!! Gure printzesa Saioari eta Ekhirri oso berandu izan arren, ZORIONAK zuei ere eta muxu handi bat!!



Jesus Ramon ZORIONAK!!

Muxu handi bat!!!! Zure gurasoak eta anaiak.



Irati, ZORIONAK maizia!!! Aupa gure txapelduna 12. urtebetetzean!! Askok maite zaitugu! Amatxo, Ander, Txuri, aittuna, amiña, osaba Joseba eta osaba Juanmi.



Alain Alegria

ZORIONAK bihotza!!! Apirilaren 3an urte bat bete zenuen. Segi horren alai eta maitagarri. Muxu pila familia guztiaren partez.



Atikilt Arretxe

ZORIONAK gure mutiko handiari bere 7. urtebetetzean!



Izaro eta Aner

ZORIONAK bikote zuen 4. urtebetetzean!! Aitite eta amamaren partez.



Maider Urkijo Goikoetxea

ZORIONAK potxola!! Egun polita pasa dezazula. Muxu asko. Amona eta familia.



Nahia Senar Ormazabal

1-2,3-4, 5-6-7.....Nahia!! ZORIONAK txapelduna! Ongi pasa zure urtebetetze festan, muxu handi HANDI bat denon partez.



Ane ZORIONAK Anetxo!! Muxu handi bat Ekhiñeren partez.



Ane ZORIONAK poxpolina!! Hobe berandu inoiz baino. Muxu asko etxekoaren partez.



Siets Goikoetxea

ZORIONAK gure etxeko neskatila koxkorri!! Larunbatean sei urte beteko dituzu eta ea hortz berria mustutzen duzun ordurako! Primeran pasa eguna eta Mila Kilo Zorion! Amatxo, Aitaxo eta Ihart.



Siets Goikoetxea

ZORIONAK potxola!! Muxu handi bat, amona, Iñigo eta Martaren partetik.



Nahia Dagoeneko 7 urte! ZORIONAK, potxola, familia guztiaren partez!



Mila eta Miren ZORIONAK Mila eta Miren etxekoaren partez.



Igor ZORIONAK Igor!! Muxu asko, etxekoaren partetik.

Bazkideek
deskontua

Bakarra:
3,50€

Bikoitza:
7€

apiribilak

12-18

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Motxila 21. Apirilaren 13an, larunbatean, 19:30ean Dorraoko frontoian.

Astro rock: Maritrisin, Lady tripi eta Josu Jon y mas. Apirilaren 13an, larunbatean, 24:00etan Dorraoko frontoian.

Skaiketana+Iheskide. Apirilaren 13an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

Dantza

Nevo drom. Apirilaren 13an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Maria Legarda.**

Antzerkia

Ehunzango baten ipuinak. Apirilaren 14an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Pasadas las 4.**

Bakarrizketa

Confidencias de un Futbolista. Apirilaren 12an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Zuhaitz Gurrutxaga.**

Dokumentalak

Fracking-ik ez! Apirilaren 16an, asteartean, 19:30ean Iturmendiko auzogelatan. **IGA.**

Zinema

Django desencadenado. Apirilaren 12an, ostiralean, 22:00etan eta

apirilaren 14an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteera

Olazti-Arantzazu. Apirilaren 14an, igandean, 7:00etan, Olaztitik. **Sakanako Mendizaleak.**

Sasoia. Apirilaren 14an, igandean, goizez, Irurtzundik. **Iratxo mendi taldea.**

Moncayo. Apirilaren 14an, domekan, goizez, Altsasuko Mendigoizaleen egoitzatik.

Txirindula irteerak

Dulanzko gaina. Apirilaren 14an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 9:20ean Bioitza kanpinetik. 60 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Erakusketak

Oihanetik itsasora. Apirilaren 21era, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

AHTrik ez! Apirilaren 14ra arte Iturmendin. **IGA.**

Hondakinak. Apirilaren 13an eta 14an, larunbatean eta igandean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranazko plazan.

Fracking-ik ez! Apirilaren 15etik 21era Iturmendin. **IGA.**

Hitzaldiak

Kirola eta gazteria. Apirilaren 12an,



ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

AHTrik ez! Apirilaren 12an, ostiralean, 19:00etan Iturmendiko auzo gelatan. **IGA.**

Mandazainak, oihana eta itsasoaren arteko lokarri. Apirilaren 18an, ostegunean, 18:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlaria: Nicolas Arbizu.**

Bertsolaritza

Txoperena, Iturrioz, Arbina, Illaro, Gorosterrazu eta Soto. Apirilaren 12an, ostiralean, 21:30ean Etxarri Aranazko Karriestu elkartearen. **Bertso Afari Txapelketa.**

Tailerrak

Hondakinekin eskulanak. Apirilaren

13an, larunbatean, 12:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Batxata eta kubako saltsa. Apirilaren 13an, larunbatean, 12:00etatik 14:00etara Altsasuko Labadero eraikinean. **Dohainik.**

Bestelakoak

Munduko emakumeen topaketak. Apirilaren 17an, asteazkenean, 17:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Etxarri Aranazten nolako hirigintza nahi dugu. Apirilaren 17an, asteazkenean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Deialdiak

Alkatetza, bai esan? Apirilaren 12an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 12an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Apirilaren 15ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Herri gaideketarako sinadura bilketa. Apirilaren 12an, ostiralean, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko udaletxean. **Etxarri 2012+1 ekimena.**



Gaurtik aurrera **Guaixea soilik bazkideek jasoko dute** etxean, hau da, **Guaixe pegatina dutenek**. Gainontzekoek herriz-herri zehaztuko diren gunetan (kioskoak, okindegiak...) jaso beharko dute Guaixea.

**Guaixea etxean
jasotzen jarraitzeko,
bazkide
egin zaitetz!**

Deitu **948 564 275** edo **948 562 107** telefonoetara



Zaborrak

Xabier Reparaz Extramiana

Azken aldian hizketa-gai dugu zaborra barra-barra. Hitz berriez apaindua, arazo zahar bat dugu sortzen ditugun hondakinena. Garai batean, organiko famatua txerri-jana bihurtzen zene segituan eta bestelako hondakinak naturak desegiten zituen. Oraindik ere ikus ditzakegu zeramikazko zati-txoak gure soroetan, garai bateko zaborraren oroigarri.

Beranduago, plastikoaren aro-

an sartu ginen. Itsasoan zein lurtean, ia desegingaitza den petrolioaren seme hau, hondakinen gestioa oztopatzen hasi zen. Gogoan dut, herriko zaborrak eguna eta ordua zuen garaia, traktore zahar baten gurdian desagertzen ziren poltsa haiek mendien magalean. Han jarraitzen dute lurpean gorderik, gure bistatik ezkutuan, baina bertan desegiten.

Azken urteetan birziklatzen hasi ginen, kosta zitzaigun edukiontzietara ohitzea, baina azkenik gutako askok birziklatzen ikasi genuen. Hala ere, sortzen genituen hondakinek gora egiten zuten etengabe. Arbizuko zabortegia toperaino bete eta itxi beharra izan zen. Beste zabor poltsa erraldoi bat hantxe usteltzen.

Orain gure hondakinak Tute-

rara doaz, kilometro luzetako bidean, Erriberan lurpera ditzaten. Zentzu gabeko bidaia eta gastu hau ekiditeko ideiak sortu dira, natura zaindu eta arazo zahar honi irtenbide bat emateko. Pentsa dezagun etorkizunear aurkituko ditugula moduak zaborrak minimora eramateko. Bitartean saia gaitezen ideia berriekin, saiatsen ez denak ez baitu inoiz ezer lortuko.

astekoa

barrutik kanpora

FCC eta UPNren amarruak

CNC delakoak (Comisión Nacional de la Competencia) agerian utzi zituen Portland-en (FCC) iruzurrezko praktikak. Lehendabizi merkatua legez kontra banatzen zuten eta gero lehia askeari izkin eginez, gainprezioak ezartzen, horrela nafarro 200 milioi euro baino gehiagoko diru galera eragiteaz gain, Portland-ek sortutako kartel horretan parte hartu nahi izan ez zuten enpresak hondamendira bultzatuz. Horretaz gain, sektore horretan 200 lanpostu desagerrarazi zituen, zementu, hormigoi eta agregakin kontsumoak gaur egungoa hirukoizten zuen garai hartan.

Mafia eta lotsagabekeria giro honetan, Barcenasen paper entzutetsuak ere aipa ditzakegu. Bertan FCC lehen lerroan ageri da bere negozioei dagozkien erabakiak hartzerakoan ardura duten alderdien diru kontuak handiagotzerakoan. Eta aipatze-koa ere bai, gaur egungo Portlandeko hainbat lehen mailako goi kargu, Nafarroako Gobernuaren Kontseilari eta Zuzendari Nagusi izan direla.

Bestalde, eta azken aldiko albisteen haritik, UPNren buruzagiek etikoki deitoragarria den eran dirua jasotzea nola maite duten ezagutzen ari gara, eta ikusi dugu nola alderdi horretako buruzagi nagusiak judizialki inputatuak izan diren arrazoi horrengatik.

Eta hauxe ere kezka nagusi bihurtzen da, inguruko eskualdeetako herritarren borondate sendoaren aurka, enpresa pribatu baten mesedean beste sekula erabili ez den legeri berezia erabiliz eta gure udal autonomia zapalduz, Sakanan erarik ankerrean errausketa nola inposatu nahi diguten ikusten ari garen garai honetan.

Gure osasuna, gure baliabideak eta gure etorkizuna ezin dira multinazionalen eta politiko higuinarien esku utzi. Ez ahaztu, gure bizia dagoela kolokan, eta hori ez da txantxetako.



olaztinerausketariketz.blogspot.com/

hara zer dien

Bikotea eraikitzeke

Bizitzako esperientziak, hau da, harremanak, harremanetan ditugun gatazkak, galerak, gaixotasunak, gure burua ezagutzen laguntzen digute, horrela bizitza aurrera doan heinean gure alde guztiak ezagutu, onartu eta beraiekin bizitzen ikasten dugu. Bizitzako beste alorrekin gertatzen den moduan bikote harremanetan ere etengabe ikasten gaude, gure buruaz, eta harremanez baita ere.

Bikote harremanak, harreman garrantzitsuak izaten dira guztiontzat, baina nola eraiki behar ditugun gutxitan erakutsi digute. Fina Sanz psikoterapeutak eman

dizkidan formazio ezberdinetan beti gogoratzen zigun maitasuna bidea egiten laguntzea zela. Argi erakutsi zigun norberak bere bidea egiten duela, baina oso ondo zegoela bidea elkarri lagunduz eta elkarrekin egitea. Bakardadean ibiltzen ikasi behar genuela, kontuan hartuta bestearen presentzia oso atsegina dela.

Hau da, bikote harreman batean, besteari entzuten, laguntzen, zaintzen ikasten dugu, aldi berean bestearengandik, laguntza eta zaintza jasotzen ikasten dugu, ahaztu gabe norberak bere bidea duela eta ez ditugula espazio guztiak konpartitu behar. Hau da,

pertsona batekin harreman bat eraikitzeke, pertsona bat maitatzeko ez dela derrigorrezkoa denbora osoa konpartitzea berarekin, aisialdiko ordu guztiak berarekin pasatzea, zaletasun berdinak edukitzea, ez eta alor guztietan ados egotea.

Gurasoengandik jasotako eredu fusionalak, non bikote izatea mundu bakar bat eraikitzea suposatzen zuen, gaur egun bikote askorentzat ez du eredu bezala balio, eta askotan ereduak ez edukitzea beldurra ematen digu, euskarririk gabe geratzen garelako. Ereduak ez edukitzeak ez du esan nahi euskarririk ez ditugunik,

baina esango nuke bikote bakoitzari bere bidea egitea tokatzen zaiola, eta norberak erabakitzen duela zein den beraiendako bide egokiena. Bide honetan lagungarriak iruditzen zaizkidalako, eta arestian Fina Sanzek esaten duen ildotik doazelako, gaurkoan Fritz Perls Gestalt terapiaren sortzaileak harreman osasuntsuak eraikitzeke proposatzen dituen ideia batzuk luzatzen dizkizuet: bestearen ezberdintasunak errespetatzea, ardurak hartzea, konpromisoa, ni eta bestearen arteko limiteak argiak izatea, hau da nirea dena eta ez dena argi izatea.

Olatz Berastegi

objektibo tik



Etorkizuna landatzen Arakilen:

Ekaiko herri eremuan 25 gaztainondo eta intxaurren landatze ospatu zuten arakildarrek Zuhaitzaren Eguna. Zuhaitz bakoitza zainitzeko ardurar haur eta helduek sinatu zuten, eta diplomak bitartez gauzatu hartutako konpromisoa. Zuhaitzez zuhaitz, umez ume, etorkizuna landatuz!

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

gora/behera



Lanbide Heziketa

Ikasturte berrian eskaintza berria eskainiko du ikastetxeak, Nafarroarako eskulibian.

Gerra

Bat bera ere ez da ona.



Duela 77 urteko arrastoek hitz egiterik balute...

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a



Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Felix Alzelai

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.100 ale

MADRILGO GOURMETS SALOIA: Astelehenerik atzora arte ospatu zen XXVII. Gourmets Klubaren Nazioarteko Saloia. Europako "delicatessen" produktoreen erakus-

leho nagusia den gertakari horretan 1.100 enpresa izan ziren. Haietako bat Embudos Arbizu izan zen.

sakanerria >>

SAKANA

Guaixek banaketa sistema berria mustu du

Gaurtik aurrera Guaixe etxean jasotzeko, zure buzoian ostiralero jasotzeko, Bierrik fundazioko bazkide izan behar zara

Sakanako berri ematen jarraituko du Guaixe astekariak, baina zabaltzeko modua aldatu du. Asteak orain arte bezala, etxeko postontzian, Bierrik fundazioko bazkideek soilik jasokodute. Guaixe eta Beleixe kudeatzen dituen fundazioak erabaki hau hartzeko hainbat faktore hartu ditu aintzat. Batetik, azken urteotako diru laguntzen beherakada dela eta finantziario iturri propioen jaitzieren ondorioz, urteko aurrekontua doitzeko hartu du banaketa sistema aldatzeko erabakia.

Bestetik, bazkide kanpainan jaso duen jendearen babes eskertu nahi izan du erabaki honekin. Bazkideku diren 1.500 herritar, enpresa, udal, erakunde, denda eta komer-

tzio guztiei balio erantsi bat eskaini nahi izan die horrela. Bide batez, banaketa sistemaren aldaketa bazkide gehiago lortzeko erabili nahi du Bierrik fundazioak.

Abantailak

Inoiz baino ezinbestekoagoa da orain bazkide egitea eta oraindik bazkide ez direnei Bierrik fundazioak laguntzaile egiteko deia luzatzen die. Bazkideek Guaixe eta Beleixe proiektuak laguntzeaz gain, beleixeguaixe txartela jasoko dute eta Sakanako 80tik gora komertzioetan deskontuez gozatuko aukera izango dute, Bierrik-eko diseinu eta inprenta zerbitzuan %5eko deskontua izango dute, Errenta Aitorpenean kuota desgrabatze aukera izango dute eta Guaixe pegatina jasoko dute buzoian ipintzeko, ostiralero asteakaria etxeraino heltzeko.

Hala ere, fundazioak herritar eta Guaixe irakurle orori informatu nahi die astekariaren ale batzuk herriz herri aukeratutako ondoren-



Sakanako makina bat buzoik pegatina mustu dute.

go lekuetan ipiniko direla denon eskura, Sakanan Guaixek duen

eragina eta erreferentzialtasuna mantenduko du horrela. Gainera,

www.guaixe.net atariaren bidez jaso daiteke Sakanako berri ere.

Banaketa puntuak

Irurtzun: Martxueta, Pikuxar, El Viejo, La Moncloa, Matxain, Patxi Galartza, Tahona, Plazaola eta Ciber.

Etxeberrri: Elkartea.

Egiarreta: Elkartea.

Uharte Arakil: Erosle, Mendinuetaharategia eta Aizpunharategia.

Lakuntza: Estankoa eta Ogiberri.

Arbizu: Lonbreren denda eta udaletxea.

Etbarri Aranatz: Mari Xele, Kaxeta, Portuko okindegia, Amaya okindegia, Loreren denda, Oskarren denda, Leteren etxea eta estankoa.

Baljiakaiku: Estankoa.

Iturmendi: Aritzaga eta Aizkozar.

Urdiain: Udaletxea eta Lopez de Goikoetxea harategia.

Altsasu: Netto, INEM aurreko kioskoa, Eroski, Zumalakarregiko kioskoa, Iortia kultur gunea, Amaya okindegia (San Juan kalea), udaletxea, Portuko okindegia, Aliprox eta Fortxo.

Olatzagutia: Clinker, Urbasandena, Aliprox, Kiroldegiko taberna eta estankoa.

Ziordia: Udaletxea, Urbasa eta Etxaleku.

MOTZEAN

Emakumeendako deia

Topaketa baterako deialdia egin zaie ibarreko emakumeei. Asteazkenean izanenda, 17:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Topaketa horren helburua da ibarrean bizi diren kultura ezberdinetako

emakumeak elkarrekin arratsalde gozo bat pasatzea. Sakanako Mankomunitetako Immigrazio Zerbitzuak, Burundamendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Altsasuko Udaleko Emakumearen Bilguneak egindako deia da. Informazioa nahi duenak 648 070 710 telefonora edo immigrazioa@sakana-mank.com postara idatzi behar du.

MOTZEAN

BERRIAREN hamargarren urteurreneko ospakizuna gurean

Euskara hutsean argitaratzen den Berria egunkariak aurten 10 urte beteko ditut eta hori ospatzeko agenda zabala prestatu du. Euskal


Herrian barnako ospakizun bira gaur hasiko da, Errenterian, eta garagarriaren 15era arte luzatuko da. Ospakizun bira hamar urtetan jasotako sostengua eskertzeko eta bere berri emateko modu bat izatea nahi du Berriak.

Bira 29 kultur ekitaldi osatzen dute. Saiobakoitzean, kultur emanaldiaren aurretik aurkezpen labur bat egingen dute eta bideo artistiko bat proiektatuko da.



tuko da. Berriak bere bira Altsasura ekarriko du eta sarrerako ondoren Gariizandakantari Iortia kultur gunean, garagarriaren 8an.

Bazkide zozketa



APIRIBILEKO SARIAK:

1.- 2 SARRERA EKAINBERRI KOBAZULOETARAKO + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOAREN LIBURU BAT
2.- KATXIPORRETA ARROPA 1 + TRIMAN

NAVARRA 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOAREN LIBURU BAT
3.- KATXIPORRETA ARROPA 1 + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOKO LIBURU BAT
4.- KATXIPORRETA ARROPA 1 + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA + ELHUYAR FUNDAZIOKO LIBURU BAT

Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua edozein zerbitzutan, diruz ordainduz gero.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

Espazioaren aldaketa: %50eko deskontua.

MARIA LUISA

ALTSASU

100€-tik gorako erosketetan, 10-tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

30€-tik gora, maskarilarekin larruzaleko masajea. 50€-tik gora, anpoila hidratatzaile bat.

MARTXUETA

IRURTZUN

%5eko irakurketako liburue-

tan.

MENDILORE

BAKAIKU

30€-ko erosketarengatik, landarea doan, %5-ko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

» Lakuntza

Parkea buruan, bigarren eskuko azoka

Dirua ateratzeko objektuak biltzen hasi dira, gero salgai jartzeko

Zinemako lanek herria haurrendako jolas parkerik gabe utzi zuten. Parkea Martxan batzordea sortu zen eta aisialdi gunea berritzeko proiektua ondu du. Hura egiteko dirua udalak eta batzordeak jarriko dute. Horregatik, azken hori bigarren eskuko azoka prestatzen hasi da.

Egoera onean dauden eta etxean erabilpenik ez duten jolasak, liburuak, poltsak, txapelak, arropa, belarritakoak, koilareak, etxea apaintzeko gauzak, diskoak, altzariak, irratiak, kirol materiala eta bestelakoak udaletxe sarreran

uzteko eskatu diete lakuntzarrei. Etxetik objekturen bat jasotzea pasatzea nahi dutenek 666 649 416 telefonora hots egin behar dute. Garagarrilaren 14ra arte jasoko dituzte objektuak. Azoka, berriz, garilean egitea aurreikusten du batzordeak. Aurretik bestelako jarduerak ere egingen dituzte.

Proiektua

Lakuntzako Udalak bere gain hartuko ditu urbanizazio lanak. Apika, lanak udan has litezke. Parkea Martxan Batzordearen ardura da jolasparke egituratua eta ez egituratua. Jokoak eta beste muntatzen irailetik aurrera hasi nahi-



Parkea Martxan batzordeko kideak. ARTXIBOA

ko lukete batzordekideek. Egituratu gabeko parkeari dagokionez, auzolanean egingen da. Gainera, diseinua adosteko haur eta heldue-

kin tailerrak antolatuko ditu batzordeak. Gauzak ongi urte berriarekin batera parkea mustuko lukete lakuntzarrek.

» Etxarri Aranatz

Herriko hirigintza eredua parte hartzearen bidez zehaztu

Egungo araudian dauden elementu zaharkitu, desegoki edo nahasien gainean lan egin nahi da

Etxarri Aranazko Udaleko Hirigintza Batzordeak etxarriarrak herriko hirigintza ereduaren inguruan duten iritzia ematera gonbidatu ditu. Horretarako etxe etxe inkesta bat banatu du. Gainera, asteazkeneko, informazio batzarra antolatu du. Kultur etxean batzordekideek hirigintza planaren gai orokorreari buruzko informazioa emanen dute: akatsak, eta aldaketak egiteko proposamenak.

Etxarriarrek herriko hirigintza jardueran ikusten dituzten arazok azaltzea nahi dute batzordeko kideek inkestaren bidez. Eta egun dauden arazoak konpontzeko ideiak proposatzea ere. Iragarri dutenez, aurrerago hirigintza plan osoaren berrikusketa aurrera egingen da, baina orain zahartuta gelditu diren edo zuzendu beharreko elementuetan zentratu nahi dute. Aldi berean, Hirigintza Batzordetik jakinarazi dute udala dagoeneko zenbait aldaketa zehatz bideratzen hasi dela, "industria jarduerak jartzeko eta abeltzariak zabaltzeko presa dagoelako edo hainbat laguntza galtzeko arriskua dagoelako".



Hirigintza batzordea, bilduta. UTZITAKOIA.

Goiz eta arratsalde sinadurak biltzen

Gaur, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko udaletxean
Etxarri 2012+1 ekimenak autoterminazioari buruzko herrigaldeketa sustatu du eta hari babesazaltzeko azken eguna gaur da. Lege-diak herriko erroldaren biztanleen %10ren babes eskatzen die sustatzaileei, baina ekimeneko kide-

Tailerra

Hilaren 24an, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean hirigintzari buruzko tailer praktikoa

antolatu du batzordeak. Hartan, inkestari buruzko gai zehatzak landuko dira, kontzeptuak eta zalantzak argitzeko.

Plaza bete hondakin, haien bilketa azaltzeko

Bihar eta etzi, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranazko plaza hondakinez beteta egonen da. Udaleko Hondakinen Batzordeak antolatu duen erakusketa da ikusgai izanen dena. Baina egoiki sailkatutako hondakinekin batera, erakusketan bestelakoak ere izanen dira. Alde batetik, Etxarriko bilketa-puntuaren argazkiak, auzo-konpostatzaileen kokapenaren planoak, konposta egiteko informazioa eta atez ateko sistemari buruzko informazioa.

Bestetik, sistema berriari lotutako hainbattresna eta materiala egonen da ikusgai. Gainera, haima batean, hondakinen bilketari buruzko hainbat erreportaje ikusteko aukera izanen da. Horretaz gain, hainbat hondakin biodegradatzeko beharrezko duten denborazagutzeko modua emanen du erakusketak, bestelako informazioak emateaz gain.

Tailerra eta auzatea
Larunbat eguerdian, plazan haurrek hondakinekin eskulana egiteko tailerra izanen da. Aurpegia margotzeko ere aukera izanen dute txikiak. Igandean, berriz, 13:00etarako auzatea iragarri dute.

» SAKANA

Urbasako kanpinaren kudeaketa lehiaketa bidez emanen du gobernua

Bioitza kanpina kudeatu nahi duten pertsonen haien eskaintzak hilaren 26ra arte aurkeztu ditzakete Nafarroako Gobernuaren egoitzan. 60.000 euroko bermea aurkeztu beharko da. Urbasa-Andia natur parkean dagoen kanpinaren kudeaketaren hartzaileak 10 urtez izanen du kanpina bere eskuetan, gehienez ere 15 urtera luzatu daitekeena. Nafarroako Gobernuak jarritako baldintzen arabera, kanpinagutxienez Aste Santuan eta udan garagarrilaren 15etik irailaren 15era izan beharko luke zabalik.

KANPINA

Bigarren mailako kategoriadu. Jate-txea, aterpetxea eta zerbitzutarako bi eraikin ditu. Gainera, 14 bungalow independente eta 80 auto-karabanendako leku duen eremua ditu. 80.000 metro karratuko eremua hartzen du.

» Irurtzun

Senegalgo kontsultategirako 1.893 euro

Horixe da Itxipuru taldeak lortu duena Senegalgo Darou Salamen kontsultategi anbulatorioa zabaltzeko. Diru horren zati handiena, 1.128 euro, bigarren eskuko azokan saldutako objektuen bidez eskuratu zuen Itxipuruk. Gainontzeko 765 euroak larunbatean egin zen elkartasun azokan.

» Altsasu

Hirigintza arauetan aldaketa

Altsasuko Udalak azken bilkuran onartu zuen igerilekuen ezohiko estaldurak egiteko. Horregatik, hirigintza arauen 27 artikuluen aldaketa egin zuen. Adostutakoaren arabera etxeko igerilekua estaltzeko aukera izanen dute hala eskatzen duten familiek, baldin eta kideren batek %80 baino gehiagoko ezgaitasuna baldin badu eta dagokion osasun ziurtagiria aurkezten badute. Herritar baten eskariz aldatu da.

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

IHESLARIAK
ETXERRA

BILTOKI
taberna

tel. 948 467 876 Altsasu

» Altsasu

Herri baratzak prestatzen

Sakanako Langabetuen Asanbladaren ekimenez jarriko da martxan

Baratza izaten interesa duten 16 pertsona bildu ziren atzo Sakanako Langabetuen Asanbladak (SLA) deitutako batzarrean. Langabetuen egoera larria ikusita lur sail baterako sarbidea izan eta hala jatekoa bermatzeko ekimena da SLAk martxan jarri duena. Hau da, pobrezia kontrako tresna bat sortu nahi dute.

Asanbladako kide Raul Rellane azaldu digunez, helburu ugari lortu nahi dituzte herri baratzekin: “nekazaritza teknika ezberdinak probatzea, hondakin organiko konpostatzea bulkatzea, proiektuari lotutako jarduerak sustatzea, lurrarekiko harre-

manaren bitartez kultura eta jatorri ezberdinetako herritarren arteko harremanak lantzea eta gazteekin lurrari loturiko transmisioa lantzea”.

Izena eman

Udalak utzitako herri lur batean prestatuko dituzte herri baratzak, langabetuendako, etorkinendako, baratza izan nahi duenarendako, premia dutenendako izanen dena. Interesatuak SLAekin harremanetan jarri behar dute. Atzoko batzarrean lurra nola banatu aztertzen hasi ziren. Behin herri baratzak martxan jartzen direnean hura kudeatzen dutenak arduratu dira asanbladan haren kudeaketaz, SLA beste ekimenekin segitzeko asmoa duelako.

Bilerak

Sakanako Langabetuen Asanblada astelehenero 15:30ean bildzen da Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Hasi aurretik, zenbait erabaki hartu dituzte langabetuek. Rellane azaldu digunez, lurra era ekologikoan landuko da. “Herritarren topagune izan eta elkarlanean oinarrituko den gune irekia proposatzen dugu, kultur transmisioan eta generazioen arteko irakaspenean oinarrituta”. Langabetuei begira, haien “antolakuntza, autoenplegua eta autogestioa” sustatu nahi dute ere. Udalak, bestalde, ura utziko die.

Ikastaroa



SLAk baratza egoki lantzen ikasteko ikastaroa eman du. Lanbide Heziketan nekazaritza eta abeltzaintza ikasketak eginak dituen Aritz Urdangarin izanen da irakaslea. Ikastaroa apirilaren 25ean hasiko da, ostegunez, 16:00etatik 19:00etara, eta beste hiru ostegunetan luzatuko da. Aurreneko saioa, teorikoa, Intxostiapunta gazte gunean izanen da, gainontzekoak herri baratzetan. Ikastaroan izena eman nahi duenak Intxostiapunta gazte gunera jo behar du: 948 564 785 telefonora hots eginez edo gazteria@altsasu.net e-postara idatziz.

SAKANA

Kaleratzeak eta EEE Lanekon

Atzo akordiorik gabe despedituzen Lanekoko bi Enplegu Erregulazio Espedienteen (EEE) kontsulta epea. Alde batetik, 25 langileri kontratuak hausteko espedienteaz goen mahai gainean. Zuzendaritzak enpresa batzordearen (LABek 4, ELAk 2, CCOOk 2 eta UGTk 1) adostasunik gabe EEEekin aurrera egitea erabaki du eta 25 kaleratze izanen dira enpresan. Hilaren 22tik aurrera 10 langile lanik gabe geldituko dira eta gainontzeko 15ak urtean zehar. Legeak onartutako gutxieneko kalte-ordainarekin izanen dira kaleratuak, lan egindako urte bakoitzeko 20 egun.

Bestetik, langile guztielana aldiari eragiten zion espediente. Aurreko EEEen lan baldintzetan murrizketak egin zitzaizenez, horiek bere horretan mantenduko ditu zuzendaritzak. Espediente horrek sindikatuen adostasunarekin egingen du



Industrias Lanekon 25 kaleratze egingen ditu zuzendaritzak.

aurrera. Hala ere, enpresaren bide-eragarrtasun plan argirik ez dute ikusten sindikatuek.

Laneko SALen biadar ditu: fida-

garritasun altuko torlojogintza eta errepedeko garraio berezietarako ekipoa. Azken horrek krisi garaian ez du lan kargarik izan apenas.

Sunsundeguin kaleratzeak gaurtik aurrera

Enpresa eraketa berriari buruzko bilera dute gaur aldeek
Sunsundegui zuzendaritzak gaur hasiko da esaten zein langile joanen den kalera. 61 kaleratze aurreikusi ziren, baina lan kargaren arabera gutxiago izan daitezke. 18 bat izanen dira aurre-jubi-

latuta edo borondatez enpresa utziko dutenak. Gainontzeko 43ak kontratua eteteko Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) baten bidez kaleratuak izanen dira. ELAtik enpresaren “jarrera txarra” kritikatu dute eta kaleratuak aukeratzeko prozesua “latza” izan dela esan digute. LABetik, berriz, aurreratugite kaleratzeen kontra epitegiara joko dutela eta mobilizazioekin salatuko dutela.

93 langile

Laneko SALek plantilla hori du gaur egun. 2.008an 188 langile ari ziren enpresan.

» Ergoiena / Bakaiku

Desagertzeko arriskua duten udalerrien artean

Gaindegiak, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak Euskal Herrian 1.000 biztanletik bera dituzten 409 udalerrien populazioa aztertu du. 1.999 eta 2012 urteen artean 117 udalerririk populazioa galdu dutela izan da ikerketaren ondorioa. Egoera laster aldatuko ez balitz 21 herri berehalakoan desagertuko lirake eta luzera begira beste 18 herrik ere patu bera lukete.

Errealitate demografikoa aztertuta, Gaindegiatik azaldu dute etorkizun zehatz gabea dutela Ergoienak eta Bakaikuk. Horretarako, biztanleria bolumenaren galerari, bizitza-proiektua aurrera eramateko adinean dagoen biztanleriaren ihesaldiari (batez ere emakumeena), zahartze indize altuari eta amatasun indize baxu edo hutsalari erreparatu diote.

Herri txikietan biztanleria mantendu ahal izateko Gaindegiak



Jendea hizketan, Ergoienan.

azpimarratu du ezinbestekoa dela, batetik, zerbitzu eta irisgarritasuna ahalbidetuko duen lurralde politika izatea, irisgarritasuna eta enplegua sortzen duen jardueraren ekonomikoa. Horrekin batera, herrialde mailako lurralde antolamendu egoki bat, biztanleria husteko arrisku egoera saihesteko. Gaindegiatik gaztigatu dutenez, “Nafarroa Garaiak daraman lurralde politikak ez du aintzat hartzen lurraldeen husteak dakarren galera”.



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inbierle en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen LOP 2007-2013 (LEADERko 4. ardatz) programako funtsak, Europar Batasunaren finantzazioarekin (% 55), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsean (LEADER) bidez

ZERGATIK UKO EGIN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

DISKOEN, BALAZTA-PASTILLEN ETA CITROËN MOTELGAILUEN OPERAZIOA

%30 ordezko piezetan*

www.citroen.es

CITROËN prefere TOTAL

(* Promoziora atxikitako CITROËN zerbitzu ofizialetan eskaintza ballagarria. Indarrean dauden beste eskaintzekin ez metagarria. Kontratu kanpoko argazkia. Galdetu zure CITROËN zerbitzu ofizialean promozioan dauden piezen zerrenda.

2013/03/04TIK 2013/05/04RA.

>> Altsasu

Lehenengo hitza euskaraz egingo dut

Altsasuko Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak euskararekiko konpromisoa hartzeko eskatu du. Jendeari hainbat galdera egin die: dendetan zein hizkuntzatan egiten duten, ezezagunekin zein da lehenengo hizkuntza edo euskaraz zer bait galdetzean gazteleraz erantzun ondoren euskaraz jarraitzen

duten edo gaztelerara pasatzen diren, besteak beste.

“Ez zaitez espaloitik jaitsi!” ipuinaren bitartez, “konpromiso txikiak” hartzeko deia egin dute. Horretarako, konpromisoak idatzi zituzten hamarnaka pertsonak Gure Etxean jarritako kutxan. Konpromisoak uzteko kutxa Iortia Kul-



Sakandarrak, konpromisoa sinatzen.

tur Gunean hilabetez egongo da. “Konpromiso errealistak eskatzen ditugu. Lehenengo hitza euskaraz egingo dut edo lagunekin beti euskaraz egingo dut. Azken finean, euskararekiko jarrera aktiboagoa izateko eskatzen dugu”, azaldu du Itziar Claver EHEko kideak.

Deia

Altsasuko EHEko kideak bihar Agoitzen ospatuko den Euskaraz Bizi Egunera joateko deia luzatu dute.

SAKANA

Goikoetxearen oroimenez

Irailean hil zen Jose Manuel Goikoetxea, Fardel, altsasuarrak jende askorengan arrastoa utzi zuen. Hori dela eta, haren lau lagunek, tartean Jose Angel Agirrebengoa, Goikoetxearen omenez ekitaldia antolatu dute biharko. Arantzazuko santutegi ondoan dagoen Gandiaga Topagunean izanen da, 13:00etan. Aurretik, eguerdian, Goikoetxearen aldeko elizkizuna izanen da.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, biharko ekitaldian ez dute altsasuarraren goraiapamen hutsak egingen. “Goikoetxea gogoratu, eta, haren oroitzapenarekin bat, harekin oraintxe puntura arte partekatzen genituen proiektu, balio eta konpromiso zenbait berretsi eta berrindartu”.

Besteak beste, altsasuarrak politikarekin eta lehen sektorearekin hartutako konpromisoak gogoan izan dituzte deitzaileek. “Alderdi politiko eta erakundearen aldeko ekintzaile konprometitua” zela gogorarazi dute. Aldi berean, “Euskadi eta Nafarroaren etorkizuna lantzeko modu desberdinak errespetu osoz begiratzen duen abertzale-tasuna zen berea” adierazi dute antolatzaileek. Bestalde, inork gutxi etorkizunik ikusten ez zionean lehen sektorearen alde egingoak ere gogoan izan dituzte deitzaileek.

>>



Langileak protestan.

Epaitegira jo dute Lazaro Echeverriako langileek

Mugagabeko greban dauden Lazaro Echeverriako langileak enpresaren kontrako salaketa jarri zuten epaitegian ostiralean. Izan ere, enpresako jabeak, Etxeberria familia, langileen lana egiten ari dira, langileek azaldu dutenez. Hala berretsi zuen lan ikuskaritzak enpresara egindako bisitan. Langileek bi aste epean epaia espero dute. Bitartean lan ikuskaritza-

ren berri emateko enpresaren bi lantokietan egon dira langileen ordezkariak, baina zuzendaritzak hitz egiteko borondaterik ez duela ere salatu dute.

Bitartean, asteazkenean, 11:30ean, Altsasuko azokan haien egoeraren berri emateko kontzentrazioak egiten segituko dute. Lazaro Echeverriako langileek kalera-tu dituzten sei kideak enpresak

39 egun

Martxoko bilkuran Altsasuko Udalak babesa azaldu zien martxoaren 6tik greban dauden langileei. Aldi berean, kalean, ehun bat pertsonak elkartasun kontzentrazioan parte hartu zuten.

berriro har ditzala eskatzen dute. Horrekin batera, langileen lan eta soldata baldintzak blindatuko dituen hitzarmena ere aldarrikatzen ari dira.

SAKANA

Azkenean 10 pertsonen gorpuzkinak

Urbasako saroiko siman opatutakoak Aranzadi zientzia elkarteko kideak aztertzen ari dira

Balbino Garcia de Albizu Usarbarrena, Gregorio Garcia Larrambeberena eta Balbino Bados Garcia UGTko kide ziren ameskoarren gorpuzkinak ateratzeko sartu zirensimara. Eta haienak izan zitezkeenekin batera beste 7 pertsonen gorpuzkinak atera zituzten Aranzadi zientzia elkarteko kideek. Haietako bat Iruñeko irakasle bat izan daitekeela eta beste bat behartuta karlisten osteetan izena emandako bat uste dute Boluntario eta Nafarroako Afusilatuen Senideen Elkartearen. Gorpuzkin horiek identifikatzen ez badira simara bueltatu eta han omenaldia egiteko aukera aztertzen ari da elkarteak. Arrastoekin batera, Aranzadiko kideek 1936ko granada bat opatu zuten, Guardia Civilak neutralizatu zuena.

>> Iturmendi

Ama lurraren aldeko hilabetea

Izen hori eman dio Iturmendiko Gazte Asanbladak, IGAK, apirilaren 12an antolatu duen agendari. Ama lurraren kontrako egitasmoen nondik norakoen berri emateko du helburu IGAK. Hala, hileko aste bakoitza egitasmo bati eskaini dio. Aurreko astean errausketa egitasmoaren kontrako astea izan zen.

Argindar linearen proiektua hilabete honetan aurkeztuko dute Madril

Deikaztelu eta Itsaso lotuko dituen 400 Kw-eko argindar linearen ibilbide proiektua Red Electrica Española (REE) egiten ari da eta hilabete honetan aurkeztuko du Espainiako Industria eta Energia Ministerioan. Halaxe jakinarazi

Aste honetan, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrakoa da. Hari buruzko erakusketa domekara arte ikusgai izanen da eta, gaur auzogelan, 19:00etan, hitzaldia.

Heldu den astea haustura hidraulikoari edo fracking-ari eskainitakoa da. Gasa ateratzeko teknika horren berri ematen duen

erakusketa aste guztian ikusgai izanen da. Horretaz aparte, asteartean, 19:30ean, dokumental emanaldia izanen da. Hitzaldia ere izanen da. Despeditzeko argindar linearen kontrako informazioa zabalduko du IGAK. Ekimen horrekin “proiektu txikitzaile horiek guztiak gelditzea” aldarrikatu du.

epe laburrean”. Plataformak gogoraerri du 2014ko udarako Espainiako Gobernuak energia sektorearen plan berria onartuko duela. Deikaztelu-Itsaso linea han jasoa egon daiteke edo ez.

400 kilovol, 400 minutu

Izen horrekin larunbatean Iruñeko Gaztelu plazan “kaltetuendako informazio topagunea” antolatu du plataformak. Ekitaldi nagusia 12:30ean hasiko da.

>> Altsasu

Auzolana basoitxin

Larunbatean, 8:00etan, Dantzalekun. Aldez aurretik izena eman lortia kultur gunean edo 012 telefonora hots eginez

Baso garbiketa lanak egitera deitu du Auzolan taldeak. Martxoaren 23an egin zuen lehen auzolana Basoitxin, baina bigarrena eguraldiagatik atzeratu behar izan dute. Larunbat goiza Basoitxiko dameroko lauki batean ariko dira garbiketa egiten, argitzen. Egiteko handia dagoenez, altsasuarrak izena ematera animatu ditu Auzolan taldeak. Parte-hartzaileei eskularruak eta, ahal badute, aixkoltoa, aizkora txikia eramatea aholkatu diete.

beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteke errepassoa: albisteak, kirolak, Olatz Aldasoro, EHE, Altsasuko herri baratzak, Ainara Goikoetxea...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

» Urdiain

Udal aurrekontua, joan den urteko bide beretik

Urdiaingo Udalak aurten 487.000 euro kudeatuko ditu. Sebastian Aristizabal Irigoien alkateak esan digunez, "ohiko diru sarrerekin, dagoena mantendu egingen dugu". Aristizabalek aitortu duenez, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik gabe beste aukerarik ez du udalak.

Herriko etxearen parean dagoen sekuoiaz galdetuta, "norba iturri-kosturik gabeko ideiarekin batekin etortzen bada, ongi; bestela, zuhaitza lehortuta dago eta adar batzuk erortzekotan, moztu



Udalletxe aurreko sekuoia gaixo dago.

egin beharko da". 2,50 m baino altuera handiagora paratu beharko dira eta beren alde apalenean gutxienez ere 2,20 m-ko altuera librea utzi beharko da.

SAKANA

Mendi teknikari ikasketak eskainiko ditu LHK

Nafarroan eskaintza hori egingen duen ikastetxe bakarra izanen da Altsasukoa

Bihar zabalduko da Lanbide Heziketan (LH) izena emateko epea, hilaren 19ra arte zabalduko dena. Altsasuko LH institutuak heldu den ikasturterako berrikuntza eskainiko du, mendiko ertainetako teknikari ikasketak. Mendi-kirol jardueretako hastapeneko begirale izateko balioko du. Gradu ertaineko titulazioak ikastetxe, klub, federazio edota enpresetan lan egiteko aukera ematen du. Ikasketetan sakondu nahi duenak goi mailako ikasketak

egin ditzake.

Berrikuntza horrekin batera, orain arteko eskaintzari eutsi dio LH institutuak. Batetik, motorren mekaniko laguntzailea, DBH gainditu ez duten ikasleei zuzendutako hasierako prestakuntza profesionaleko programa. Bestetik, gradu ertaineko bi ikastaro: mantenu elektromekanikoa eta soldadura eta galdaragintza. Azkenik, mekatronika industrialeko goi gradua ere eskainiko du LHK.

Izen aldaketa

LH institutuak lehen Aralarko Mikel Donea II.a zuen izena. Gaur



LH institutua.

egun BHI Sakana LHI izena du eta aurki Ikastegi Bateratu Politekniko izena hartuko du.

SAKANA



Batelarekin batera makina bat gauza daude ikusteko erakusketan.

Basoaren atzean, itsasoa

Basogintza eta ontzigitza lotzen dituen erakusketa ibiltaria zabalik dago

Atzo mustu zuten Oihanetik itsasora erakusketa Altsasuko Iortia kultur gunean. Hilaren 21era arte ikusgai izanen da. Eta ondoren Sakanako beste herrietan ikusteko aukera izanen da. Erakusketak Albaola itsas kultur erakundeak eta Sakanako Mankomunitateak prestatu dute. Hara hurbiltzen direnak Sakanako basoetako zurak itsasontzi bihurtu arteko bidea ezagutzeko aukera izanen du.

Ekimen horrekin antolatzaileek "gure ondarea ezagutarazi" nahi dute. Izan ere, erakusketan ikus daitezkeen artean daude:

basoan erabilitako tresnak, egurrezko batel txiki bat, basoaren kudeaketa arautzen zuen 1.563ko

Burundako ordenantzak (Etxarri Aranazko Udalak utzia), Altsasuko 1.757ko baso eta zuhaitzen lan-

Apaizac obeto

XVI. mendeko euskaldunen balearen eta bakailaoaren arrantza Kanadako Ipar Atlantikoan; arrantzaren ekintza soilak gaindituko zuen itsas epopeia kontatzen duen dokumentala Sakanan ikusteko aukera izanen da. Quebec-etik Labradorreraino, 2.000 km eta 41 egunetan, sei euskaldunek eta Kanadako mik'maq amerindiar batek, XVI. mendeko marinel haien azalean jar-

tzeko ahalegina egin zuten. Atzo Altsasun ikusteko aukera izanen da ikusgai:

Apirilaren 30ean, 17:30ean, Lakuntzako udaletxean.

Maiatzaren 4an, 19:00etan, Arbizuko udaletxean.

Maiatzaren 8an, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Maiatzaren 14an, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean.

Maiatzaren 17an, 20:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean.

Interpretazio ibilaldiak

Ontzigitzan erabiltzeko basoak nola kudeatzen zen erakutsiko da apirilaren 20an, 11:00etan, Altsasuko Dantzalekutik abiatuta egingen den ibilbidean. 19ra arte dago izena emateko epea. Maiatzaren 18an Etxarri Aranazko beste ibilaldi bat egingen da.

daketa eta zainketari buruzko ordenantza edo bale bazarrez egingako udal epaile moduan aritzeko ahalmena adierazten zuten makilak (Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo udalek utziak)... Horretaz aparte, ontzigitzara bideratutako baso kudeaketa eta ontzigitza azaltzen ditu.

Erakusketa

Apirilaren 2tik 21era Altsasuko Iortia kultur gunean.

Apirilaren 30ean Lakuntzako udaletxean.

Maiatzaren 3tik 5era Arbizuko udaletxean.

Maiatzaren 8tik 9ra Olatzagutiko kultur etxean.

Maiatzaren 14tik 26ra Etxarri Aranazko kultur etxean.

Hitzaldia

Nicolas Arbizu ikerlari iturmendiarrak heldu den ostegunetan, 18:30ean, Mandazainak, basoaren eta itsasoaren arteko lotura izeneko hitzaldia eskainiko du.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

Emakidatzen
Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

FLORES S.L.
Txistor ekologikoa

Urtebete industrialdia - R.F. - Faxa: 948 460 499 - 603321

ARKITEKTOA
maria pilar bakaikoa

ERAIKIN BERRI ZEIN ZAHARBERRITZE LANAK

Isasia Industrialdea A1 behea
31800 | Altsasu | Nafarroa
650 831 816
p.bakaiku@coavn.org

Proiektu bakoitza irizpide bioklimatikoei, bioeraikuntza eta tokian tokiko arkitekturari egokitzen saiatuko gara



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Iosu Murgiondo Murgiondo

Beti zaude gurekin baina,
zein zaila den zu gabe bizitzea.

Zure familia

Eskerrak eman nahi dizkizuegu gure ondoan
egon zareten guztiei.



Iosu Murgiondo Murgiondo

Gaueko izar argitsuena
gauza denen gaintetik,
haizea bezala,
libre.

Zure ilobak



Iosu Murgiondo Murgiondo

Sinesten dut
hartuko nauen lur hortatik
landare berriak sortuko direla:
landaretatik zuhaitzak
zuhaitzetatik loreak
loreetatik fruituak
fruituetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla.

Iparragirre Aldana familia



Iosu Murgiondo Murgiondo

Beti umorean eta lanean.

Materan etxekuek



Iosu Murgiondo Murgiondo

Nahiz ta, lankide,
joan zaren mundu hortatik urruna
ez da erraza izango betetzen
zuk utzitako hutsuna.
Beti gogoan izango zaitugu
gure Murgi laguna.

Citroen San Miguel tailerreko langileak



Mari Carmen Alvarez Zazpe

Ahots isil hau entzun
itzaletatik entzun
bihotz taupadak entzun
senti gaitzazu gertu.

Erkudenen koadrila

Juan Jose Hernandez Cabral jauna

Familiarekin bat egiten dugu
une latz hauetan



Club Ciclista Burunda

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu,
lan eskaintzak 10 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

Emakume euskalduna Sakanan lan egiteko
prest. Etxeko garbitasuna, adineko pertsonak eta
umeak zaintzeko prest egongo nintzateke. Telef

948- 46 03 82.

Ikastaroak

AESek ikastaro hauek antolatu ditu.
"Enpresa zergak. 2012ko berritasunak", apirilaren

18tik 25era; "2012ko lan erreformaren gaineko
epaileen doktrina berria", zehazteke.

UGTk ikastaro hauek antolatuko ditu.

"Soldadura TIG" maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean);
"Excel aurreratua" maiatzaren 6tik 23ra.;
"Soldadura TIG (Iruñean), maiatzaren 4tik 25era.

**FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako
ikastaroak.** Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta
<http://www.foremnavarra.org/cursos/autonomico.php>

Lehiaketa

5. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa. Lanak
bidaltzeko epea apirilaren 19 arte izango da.
Informazio gehiago: www.elkar.com/lehiaketa

JAIOTZAK

- Asma Chouiar, martxoaren 29an Irurtzunen.
- Dylan Alexander Alomia Canales, martxoaren 31n Irurtzunen.
- Aitz Berastegi Navarro, martxoaren 31n Arbizun.
- Nerea Marroyo Mariezkurrena,

apirilaren 5ean Etxarri
Aranatzen.

EZKONTZAK

- Iosu Perianez Salegi eta Elizabeth Higuero Garcia, apirilaren 6an Altsasun.

HERIOTZAK

- Francisco Manuel Perez Pozueta, martxoaren 28an Ziordian.
- Catalina Gorriti Aranguren, martxoaren 30ean Uharte Arakilen.
- Francisco Fuentes Palomares, martxoaren 30ean Altsasun.

- Mari Carmen Alvarez Zazpe, apirilaren 2an Arbizun.
- Julia Huarte Gamboa, apirilaren 3an Uharte Arakilen.
- Luciano Goikoetxea Lizarraga, apirilaren 4an Urdiainen.
- Juan Jose Hernandez Cabral, apirilaren 4an Olaztin.

- Esteban Agirre Gastaminza, apirilaren 5ean Olaztin.
- Pilar Blas Garcia, apirilaren 7an Etxarri Aranatzen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan
jasotzen da

KIROLDEGIA

KIROLA ETA GAZTERIARI BURUZKO HITZALDIA ALTSASUN: Gaur, ostirala, 18:00etan, Altsasuko Intxostiapunta Gazte

Guneak "Kirola eta Gazteria" izeneko hitzaldia hartuko du. Sakanako neska eta mutil kirolariek hartuko dute parte.

Futbola

3. MAILA

32. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 0 - CORTES 1

ISTILUAK LAKUNTZAN. 10. minutuan Cuairánek Cortes aurreratu zuen eta hortik aurrera ere parez pare aritu ziren bi taldeak. Tamalez, Sevillano Jimenez arbitroak hankaz gora jarri zuen guztia. Erabaki polemikoak tarteko, Lagun Arteako 3 jokalarí, entrenatzailea eta zuzendaritzako kide bat kanporatu zituen, gol bat baliogatu zuen eta partida 89. minutuan bukatutzat eman zuen. Haren laguntzaile batek nonbait ostikada jaso zuelako Guardia Zibilak deitu zituen. Lagun Arteak zigorren bat espero du baina kexu dago arbitroarekin. "Denok dugu hobetzeko baina berak mundu guztia bere onetik kanpo ateratu zuen. Bere azalpenen zain gaude" adierazi dute.

Saillkapena >>

1. Mutilbera 68 p
12. Lagun Artea 41 p

Asteburuko jardunaldia

UHARTE IRUÑEA - LAGUN ARTEA

(Larunbatean, 16:30ean, Uharthe Iruñean)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

26. JARDUNALDIA

ETXARRI - KIROL SPORT (atzeratuta)

ALTSASU - BERRIOZAR (atzeratuta)

Saillkapena >>

1. San Juan 67 p
8. Etxarri Aranatz 29 p
9. Altsasu 24 p

Asteburuko jardunaldia

BERRIOZAR - ETXARRI

(Larunbatean, 16:00etan, Berriozarren)

DONEZTEBE - ALTSASU (igandean,

17:00etan, Donezteben)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

22. JARDUNALDIA

NAPARBIER - ZALDUA (atzeratuta)

EGIARRETA - BIDEZARRA (atzeratuta)

Saillkapena >>

1. Elomendi 31 p
5. Zaldua 22 p
6. Egiarreta 19 p

Asteburuko jardunaldia

UNZITI - ZALDUA (igandean, 12:00etan)

ERROTAR - EGIARRETA (larunbatean,

18:15ean, Antsoainen)

Areto futbola

SAKANAKO TXAP. - IKER KIROLAK

SAKANAKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA- IKER KIROLAK TXAPELKETA HOSIERAKO

LIGAXKA DESPEDITUKO DA. Sakanako 22.

Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolakeko 3.

Itzuliko 17. eta azken jardunaldia

asteburuan jokatu da. Partida honekin

hasierako ligaxka despedituko da, eta

saillkatutako lehen lau taldeek jokatu

dituzte finalerdiak. Final handia

maiatzaren 4an jokatu da.

3. itzuliko 17. jardunaldia, azkena (bihar,

larunbatean, Altsasun)

AREZPE - ASS APPLE

BILTOKI - PIPEROXXI

PATINTER - AUZOMOTOJORIK

Pilota



Finala gertu

BERASALUZE-ALBISUREN KONTRA 10 TANTO EGITEAREKIN FINALERAKO TXARTELA LORTUKO DUTE IRUJO-ZABALETAK

Binakako Txapelketa

Finalerdiak. 3. jardunaldia

Berasaluze II-Albisu/Irujo-Zabaleta

(larunbatean, 17:30ean, Iruñeko

Labriten. NITRO)

Olaizola II-Zabala/Bengoetxea

VI-Beroiz (igandean, 17:00etan,

Atanon. ETB1)

Irujok eta Zabaletak pauso handia eman dute Binakako Txapelketa finalera sailkatzeko. Finalerdietako lehen jardunaldian Olaizola

II-Zabala 8-22 menpean hartu eta gero, igandean Bengoetxea VI-Beroizen kontra 13-22 nagusitu ziren Iberokoa eta Etxarrengo. Finalera sailkatzeko asteburuan Berasaluze II-Albisuren kontra 10 tanto egitearekin nahikoa dute Irujok eta Zabaletak.

Asko zegoen jokoan igandean Bilbon. Irujok eta Zabaletak euren bigarren garaipena lortu nahi zuten, eta Bengoetxea VI.ak eta Beroizek irabazi nahi zuten, horrela zuzenean finalera sailkatuko

zirelako. Hasieran akats potoloak egin zituen Oinatz Bengoetxeak -sakez bi falta egin zituen eta 5 akats jokoan- eta horrek asko baldintzatu zuen lehia. Nahiz eta Beroizek Irujoren eta Zabaletaren erasoari eutsi, errenta handia lortu zuten Aspekoek, 6-19ra ere aurreratuz, joko bikaina eginda. Asegarceko-akez ziren errenditu eta 13-20ra gerturatu ziren, baina Aspekoek bi tanto egin eta irabazi zuten.

10 tanto eta finalera

Berasaluze eta Albisuren kontra 10 tanto egitea. Hori da, printzipioz, Irujo eta Zabaletaren helburua, baina zurrak dira. "Beti 10 tantotik gora egin ditugu, baina soilik falta zaigu orain, hala egin behar dugunean, ez egitea" adierazi du Irujok, gauza hauek gertatzen direla adierazi nahian. Gainera, Berasaluze II-Albisu Olaizola-Zabala irabazte-tik datoz, moral handiarekin, eta finaleran egoteko gogoekin. Horretarako 22-11tik gora irabaztera derrigortuta daude. Beste finalerdian Olaizola II-Zabala arerio izango dituzte finalera sailkatzeko irabazi beharrean dauden eta gainontzeko egiten dutenaren zain dauden Bengoetxea VI-Beroizek. Hortaz, txapelketa zabalik dago.

>>

Ezkurdiak Buruz Burukoan aritzeko aukera

ARITZ LASAREN KONTRA ATARIKOA JOKATUKO DU GAUR ARBIZUN

Buruz Buruko atariko

Ostiralean, 22:00etan, Arbizon.

ETB1

Aritz Lasa-Ezkurdia

Hasierako partida: Retegi Bi-


Merino / Jaunarena-Peñagari-

kano.

Binakako Txapelketa despeditu ostean hasiko da pilotako txapelketa nagusia: Buruz Burukoa. Jose Javier Zabaletak tokia lortu du txapelketan, Binakakoan egiten

ari den lan bikaina dela eta. Aldiz, Aitor Zubietak atzelari etxarriarrak eta Binakakoan aurten debuta egin duen Joseba Ezkurdi arbizuarrak atariko partidak jokatu beharko dituzte txapelketan sartzeko.

Joseba Ezkurdi aurrelariak gaur, ostiralean, jokatu du Buruz Burukoaren atariko partida, jaioterrian, Arbizon, Aritz Lasaren kontra. Iaz ere atarikoan gailendu zitzaion urretxuarra, eta ez zaleen babesekin Ezkurdiak aurten aurrera egiten duen. Partidako ira-



Ezkurdiak zaleen babes izango du.

bazleak ez du zuzenean Banakakorako tokia lortuko; beste atariko partida bat jokatu beharko du, aurki Aitor Zubietak eta David Merinok jokatu duten atariko partidatik garaile suertatzen den pilotariaren kontra. Aipatu 4 pilotari hauen arteko onenak lortuko du Buruz Burukoan aritzeko tokia.

>>

XXI. Irurtzungo Pilota Txapelketak dakarrena

Etxarrengo eta Irurtzungo pilotalekuetan jokatu dira lehiak.

Asteburuko partidak

Ostiralean, 18:00etan, Etxarrengo:

Benjaminak:

Laso-Azpiroz (Irurtzun) / Alsua

-Alsua (Umora ona)

Elola -Iraeta (Aurrera Saiaz) /

Perez -Ibulozea (Urretxu)

Pierola-Buldain (San Migel) / Arri-

billaga -Alonso (Andoain)

Lazkoz -Murillo (Esteribar) /

Otxoa -Altube (Txukun Lakua)

Kimuak:

Otaño-Elola (Aurrera Saiaz) /

Amezketak -Arroz (Irurtzun)

Ganboa -Mariñelarena (Aldabi-

de) / Jimenez -Diaz de Gereñu

(Txukun Lakua)

Oskoz-Cuairan (Oberena) / Pezo-

Lucas (Titin)

Galartza-Ruiz (Zazpi Iturri) /

Gutierrez-Bobadilla (Titin)

Larunbatean, 9:30ean, Irurtz-

un:

Benjaminak:

Albeniz-Urruzola (Añorga) / Arra-

ras-Oiartzun (Leitza)

Sarasa -Armendariz (Huarte) /

Imaz -Gorrotxategi (Aldabide)

Orbegozo -Iraeta (Añorga) /

Orbegozo -Omar (Leitza)

Amundarain-Iribarria (Zazpi iturri)

/ Martiarena -Gorostieta

(Irurtzun)

Kimuak:

Zabaltza -Igoa (Ardoi) / apiril-

aren 6ko irabazleak

Izeta -Urbietak (Añorga) / apiri-

laren 6ko irabazleak

Zelaia -De la Fuente (Esteribar)

/ Albeniz -Izeta (Añorga)

Etxeberria -Aranburu (Ando-

ain) / apirilaren 6ko irabazleak

Asteazkenean, apirilak 17,

19:00etan, Irurtzunen

Helduak-seniorrak:

Jauregi-Aranburu (Real Socie-

dad) / Errasti -Urruzola (Usurbil)

Lansalot-Okiñena (Irurtzun-Obe-

rena) / Senar-Gebara (Pilotajauku)

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berría erosi taldea

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

9 lagunendako
TAXIA
Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

GANUZA
SUKALDEAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Elektragailuak
GANUZA
GARANTIAREKIN
Tel.: 948 460 203
faxes: 948 460 673
Etxarriko industrialdea
ETXARRI-ARANATZ

xapatero
taberna
948 460 162
Etxarri-Aranatz

Automobilismoa 4x4

Lokatz erakusketa

37 TODOTERRENO LEHIATU ZIREN SAKANAKO 4X4 TOPAKETAN, ELURRARI ETA LOKATZARI AURRE EGINEZ

Sakanako 4x4 topaketa

1. Ion Irigoien (Arizkun)
2. Txankete (Iruñea)
3. Andres Jaunarena (Arizkun)
4. Juan Migel Ofizialdegi (Artaxona)
5. Iñigo Lizarraga (Dorrea) - lehen sakandarra

Buelta azkarrenak

1. Vitor (Bilbo)
2. Josu Berastegi (Urdaian)

Sakana 4x4 taldeak antolatuta Sakanako 4x4 topaketa jokatu zen asteburuan Arbizuko industrialdean. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina hala ere jendetza bildu zen 37 todoterrenoek egin beharreko maniobrak gertutik ikustera. "Larunbatean 1.400 sarrerak agortu zitzaizkigun eta igandean ere antzeko jendetza bildu zen. Egiten zuen eguraldia kontuan hartuta, jende asko" adierazi digu Sakana 4x4 taldeko Jose Luis Lakuntza "Risitas"-ek.

Nobedadea: lasterketa

Elurra eta euriagatik sekulako lokatza zegoen. Alde batetik, zuloz, urez eta zailtasunez betetako 4 eremu prestatu zituzten eta ibilgailuek larunbatean alde batetik bestera gainditu behar zituzten eremuak eta igandean kontrako norabidean. Baina horretaz gain, eta nobedade moduan, aparte zirkuitu bat prestatu zuten, eta zirkuitu horretan lasterketa edo erresistentzia proba antolatu zen. Hau da, seinaka banatuta auto guztiak batera atera behar ziren eta zirkuituan lasterketa egin behar zuten. "Kotxe guztiak batera lanean ikustea, banaka beharrean, izugarri gustatu zitzaion jendea-ri eta asko disfrutatu zuten, bai pilotuek bai ikusleek" gaineratu digu Risitasek.

Sailkapena egiterakoan, topaketako eta lasterketako denborak

hartu zituzten kontuan, dena batera. Ion Irigoien arizkundarra izan zen garailea, eta 5.a sailkatu zen Iñigo Lizarraga dorrobarra lehen sakandarra. Buelta azkarrenak markatzerakoan Josu Berastegi izan zen 2. azkarrena.

Guztia antolatzeko 25 pertsona inguru aritu ziren lanean. "Dorrobarrak, arbizuarrak, lakuntzarrak, olaztiarrak, etxarriarrak... Pagatzeko eman digu eta kontentua" esan digu, irribarrez, Risitasek.

Arbizuko San Juanetan trial erresistentzia proba

Sakana 4x4 taldeak Arbizuko San Juan festetan trial 4x4 proba egiten du. Aurten beste modalitate bat lantzea dute buruan, ekainaren 29an: zirkuitu bat prestatzea eta todoterrenoak lasterketa egitea, aldika 4 edo 5 todoterreno ateraz. Hau da, erresistentzia proba egitea. "12 urte



www.sakana4x4.com

Sakana 4x4 taldeko informazio guztia.

berdina egiten daramagu, eta aldatu beharra dago" dio Jose Luisek. Bitartean Sakana 4x4 taldeko kideak beste herrietako probatan arikodira. "0-tik hasi naiz autoa muntatzen. Ea nola ateratzen zaidan" esan digu Risitasek.

Txirrindularitza

Gutxigatik, Urtasun



Urtasun, Egoi, Verdugo eta Azanza Girora

Euskaltel-Euskadi taldeak talde sendoa eramango du maiatzaren 4tik 26ra jokatu den Italiako Girora. Samuel Sanchez liderrari laguntzen Egoi Martinez eta Gorka Verdugo etxarriarra, Pablo Urtasun urdiaindarrak eta Jorge Azanza altsasuarra egongo dira, Migel Mingez, Ricardo Garcia, Ioannis Tamouridis eta Robert Vrecerrek batera.

Asteburuko probak

Juniorrek lasterketa dute larunbatean Lizarran, 16:00etan (73 km). 23 urtez azpiko afizionatuak Amorebietan bilduko dira larunbatean, 10:00etan (97 km) eta eliteak eta 23 urte azpikoak igandean proba dute Berriatuan, 15:30ean (137 km).

Gutxigatik baina tamalez garaipenak ihes egin zion Euskalteleko Pablo Urtasuni. Zornotzako Udaberriko Klasikoko helmugako esprint estuan Movistarreko Rui Costa aurreratu zitzaion urdiaindarrari, eta podiuma Alberto Contadorrek osatu zuen. Jorge Azanza 14.a izan zen, denbora berean, eta Gorka Verdugo 30.a, 1:15era.

Urtasunek urrutitik hasi behar izan zuen esprinta, aurrean zeuden Intxausti eta Contador harrapatzeko. "Rui Costa gerturatu eta ezin izan dut bera atzean utzi. Berak Intxausti zuen aurrean eta azken unera arte itzaroteko estrategia ongi atera zaio" azaldu zuen Urtasunek. Taldeak egindako lanarekin pozik zegoen. "Gaztela eta Leongo Itzulirako morala ematen

dit honek" gaineratu zuen. Ido honetan, Pablo Urtasun, Gorka Verdugo eta Jorge Azanza gaur hasi eta igandean despedituko den Gaztela Leongo Biran ariko dira. Bestalde, Movistarreko Nairo Quintanak irabazitako Euskal Herriko Itzulian Egoi Martinez 51.a sailkatu zen, 27:55era.

Erbiti Ardeetan

111. Paris Roubaix galtzadarrien proba gogorra RadioShackeko Fabian Cancellarak irabazi zuen. Movistarreko Hiriberriko Imanol Erbitik proba bukatzea lortu zuen. 82.a izan zen, 14:34ra. Igandean Amstel Gold Race mitikoan, asteazkenean Lieja-Bastonia-Liejan ariko da Erbiti, Valverde liderra laguntzen.

Areto futbola

Caja Segoviaren kontra irabaztera behartuta dago Trimane

Azken jardunaldian Azkar Lugoren kontra bosna berdindu zuen Trimane. 5-1 aurreratu eta egon ziren irurtzundarrak, baina 2. zati oso txarrean, berdintzen utzi ziren. Horregatik hasez azaldu zen Imanol Arregi entrenatzailea, ohorezko mailako sailkapenean 6. posturajaitsi baita Trimane Navarria Xota. Asteburuan 4. aden Caja Segovia arerio zuzenaren kontra ariko dira, eta goian egoteko irabazi beharrean daude.

TRIMANEK JAPONIA IRABAZI

Asteartean lagunarteko partida jokatu zuten Migel Rodrigok zuzentzen duen Japoniako selekzioak eta Trimane. Trimane irabazi zuen, 6-5.

Pilota

Bakaikoa, Ansotegi eta Gorriti ongi Berria txapelketan

Berria Txapelketa:

Erreka 2 - Zugarralde 1
Kadeteak:
 Bakaikoa-Medina 22 / Saldias-Eskiroz 3
Gazteak:
 Elizalde-Mariez kurrena 14 / Olano-Alduntzin 22
Nagusia:
 Ansotegi-Gorriti 22 / Urdaniz-Iribarren 18

Abiatu da X. Berria Pilota Txapelketa, Doneztebeko Erreka eta Burlatako Zugarralde taldeen arteko lehiarekin. Erreka taldean hiru sakandarra aritu ziren: Joanes Bakaikoa etxarriarra, Gorriti uhartearra eta Ansotegi etxarriarra. Ongi hasi dute txapelketa, Errekak 2-1 hartu baitzuen menpean Zugarralde. Pilotari sakandarrak bikain aritu ziren eta garaipen sandoak lortu zituzten.

Duatloia

Arbizuko Duatloirako izena ematea zabalik

Iazko etenaldiaren ondoren, aurten duatloiaz gozatzeko aukera izanen da Arbizun. Apirilaren 27an jokatuko da Arbizuko XVII. Duatloia, 16:00etan, eta izena ematea zabalik dago, apirilaren 25era arte. Horretarako www.navarratriatlon.com webgunerajoko behar da eta menuan "Competiciones" izeneko atala hautatu. Federatuek 22 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu gabek 26 euro.

MAIZA GERNIKA-LUMON

Emilio Martinek (1:03:48) irabazi du Gernika-Lumoko XVIII. Nazioarteko Sprint Duatloia (5 km-25 km-5,5 km). Juan Luis Maiza etxarriarra 47.a sailkatu zen (1:11:36), 3. beteranoa.

Atletismoa

Moreno bigarrena Aizkoien

Igandean XIV. Udaberriko lasterketa jokatu zen (8,2 km), eta Dantzaleku-Sakanako Javi Moreno altsasuarra bigarrena sailkatu zen.

Saskibaloia

Naiara Diezen UNB Obenasa, play offetatik kanpo

Ezin izan da ametsa bete. Naiara Diez saskibaloilari altsasuarraren UNB Obenasa taldeak ezin izan du play offetako finalerdietarako sailkatu. Denboraldi bikaina egin du emakumeen saskibaloiko liga inportantenean, Emakumezkoen Ligan, dabilen UNB Obenasa, eta liga erabakikoden play off-etarako sailkatu zen. Play offetako final laurdenetan, joneko partidaren 64-56 galdu eta gero, larunbatean 78-73 irabazi zion UNB Obenasa Unigironari, eta berdinketa hausteko 3. partida jokatu behar izan zuten. Asteazkenean jokatu zen partida erabakigarria, Gironan, eta nahiz eta lan izugarria egin, 66-57 galdu eta txapelketatik kanpo geratu zen Obenasa. Hori bai, harro, lan bikaina egin ondoren.

Saskibaloia

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA	
2. MAILA AUTONOMIKOIA. 2. FASEA	
ALTSASU CBASK 34 - PAZ ZIGANDA 57	
Sailkapena >>	
1. Navarra Villoslada	13+6 p
9. Altsasu CBASK	6-6 p
Hurrengo jardunaldia	
GAZTE BERRIAK A - ALTSASU CBASK (larunbatean, 18:00etan)	
GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA	
1. MAILA AUTONOMIKOIA. 2. FASEA. 9-11 POSTUAK	
ALTSASU CBASK-ek atsedena zuen.	
Sailkapena >>	
1. Liceo Monjardin A	2+1 p
4. Altsasu CBASK	0 p
Hurrengo jardunaldia	
LICEO MONJARDIN A - ALTSASU CBASK (Apirilaren 13an, 18:00etan)	
*OHARRA: Informazio +: www.guaixe.net	

948 564 275

Guaixe KOMUNIKAZIOA eskaintza

BAXERRI ERRETEGIA

flyer edo eskuorrien eskaintza

300 ALE 80 €
 1.000 ALE 170 €

Mendia

Hiru Mendizerrak elur artean

IBILBIDEA LABURTU ETA ERALDATU EGIN BEHAR IZAN ZUTEN EGURALDI TXARRAGATIK

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatzen duen mendi ibilbidea goitik behera baldintzatu zuten eguraldiak larunbatean. Urbasa, Alzania eta Aralar mendizerrak zurituta agertu ziren goizean goiz. Elurra, hotza, lainoa eta haizea, hori zen panorama. 550 mendizalek emana zuten izena mendi ibilbidea osatzeko, baina eguraldi petrala ikusita 230 mendizale ausartu ziren hotzari aurre egitera. Asko, zegoen eguraldirako.

Antolakuntzak, bitartean, ibilbidea berrikusi eta arriskutsuak izan zitezkeen puntuak itxizituen, eta ibilbide alternatibo bat prestatu zuten. Horrela, Bargagaingo mendi tontorra (1.160m, ibilbideko altuera) ibilbidetik kendu egin zuten, elurra, lainoa eta haizea zirela medio. Ziordiko jaitsiera, ere, Olaztiko portutik egin zen. Ziordian indarrak berreskuratu eta gero ibilbidea bere horretan mantendu zen. Ibilbide luzea hautatu zuten mendizaleak, gehienak, Kipularrera igo ziren eta Alzaniako mendiak gurutzatuz Sorozarretatik jaitsi ziren. Baina hortik aurrera aldetak egin zituen antolakuntzak. Sarabe, Balankaleku eta



Mendizaleak Gure Etxeako helmugan. Alboan bi mendizale talde probaren azken txanpan. ERKUDEN BARROSO.

Intsusburu kendu zituzten, "elur asko" zegoelako. Mendizaleak Sorozarretatik Altsasura joan behar ziren zuzenean.

"Pena, eguraldia", adierazi zuten antolakuntzatik. Horretaz gain, ez zen bestelako arazorik izan. Dena dela, mendizaleek egu-

raldiari alde ona aterazioten: "Paisaia oso polita dago. Gogorra izan da, baina oso polita. Hurrengo urtean eguraldi onarekin itzuliko gara", zioten Gure Etxera iristen zirenean. Ibilbidea moztu izana eskertu zuten mendizaleek. Azkeneko taldea 17:00etan iritsi zen, ibil-



Olaztitik Arantzazura Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak ibilbide bikaina antolatu du apirilaren 14rako, iganderako. Olaztitik aterata, Arantzazuko santutegira heltzea da erronka, eta Olaztiko Sutegi kluba da ibilbidearen arduraduna. Hitzordua goizeko 7:00etan jarri dute, Olaztin. Ibilbidea egin nahi duena bertara agertu daiteke.

24. Sakanako Ibilaldi Handirako izena ematea zabalik

Irurtzango Iratxo mendi elkar-tea buru belarri dabil apirilaren 27an antolatuko duen 24. Sakanako Ibilaldi Handia prestatzen. Ohikoa denez, bi ibilbide izanen dira aukeran: luzea, Hiru Basilizak, San Donato, Aralarko santutegia eta Trinitate ermita lotzen dituen (55,6 km, 3000 m desnibela) eta goizeko 6:00etan abiatuko dena, eta laburra, Gaztelu-Larrazpi (31,2 km, 1150 m desnibela), goizeko 7:00etan abiatuko dena.

Izena ematea zabalik dago www.iratxoelkaratea.com web gunean.

Aizkora



Resanok Banakako Urrezko Aizkorako kanporaketa jokatu du igandean Leitzan. Beltza, Goñi eta Vazquez bidean geratu dira.

Iban Resano aurrera Banakako Urrezko Aizkoran

Banakako Urrezko Aizkora hasi da. Kanporaketa moduan jokatzen ari da txapelketa. Aizkolariek ondoko lana egin behar dute: lehen fasean 45 ontzako moztu; bigarrenera sailkatutakoek kana-erdikoa erdibitu eta bukarako fasera sailkatutakoek 60 ontzako moztu. Zerainean jokatutako kanporaketan 12 aizkolarit aritu ziren eta Kañamates III.a, Arkaitz Jauregi, Iban Resano dorrobarra eta Xabier Zaldua heldu ziren azken fasera. Bidean geratu ziren, tartean, Goizeder Beltza, Aritz Goñi eta Iñaki Vazquez "Sakana" sakandarrak. Azken fasean, etasorpresa emanez, 60 ontzako moztu ten Kañamates III.ak Jauregi hartu zuten menpean, eta Iban Resano dorrobarrrak Zalduari irabazi zion, txapelketan aurrera eginez.

IGANDEAN LEITZAN

Igandean Banakakoaren beste kanporaketa bat jokatu da Leitzan, 12:00etan. Iban Resanorekin batera Irazu, Larrañaga, Etxeberria, Oihan Larretxea, Xabier Mindegia, Saralegi, Kañamates III, Alkizalete, Otaño, Jauregi eta Zaldua. Bi onenek egongo gure aurrera.

Futbola



Udako futbol campusa antolatu du Mank-ek

IZENA EMATEA ZABALIK, MAIATZAREN 31RA ARTE

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Altsasuko Udalaren eta Nafarroako Kirol Institutuaren laguntzarekin, udako futbol campusa antolatu du uztaileko. Udako oporretan futboleko sakontzeko aukera ematen die neska-mutikoei urtero arrakastaz gauzatzen den futbol campusak.

Udako futbol campusa Altsasuko Dantzaleku Futbol Zelaian eskainiko da, bi txandatan. Uztailearen 8tik 13ra 2001etik 2003ra bitartean jaiotako neska-mutikoei dirira, eta uztailearen 15etik 20ra 1998tik 2000 urtera bitartean jaiotakoak. Talde bakoitzean gehienez ere 30 parte-hartzaile onartuko dira. Gazteak goizeko 9:30etik 14:00etara

Izena emateko

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua (948 464 866 telefonoa, kirolak@sakana-mank.com posta elektronikoa edo www.sakana-mank.com web gunea). Prezioa: 35 euro partaidetako. Ordainketa: 3035 011693 116.0.00332.8 (Euskadiko Kutxa).

murgilduko dira futboleko, Peio Goikoetxea nazio mailako futbol entrenatzailearekin teoria, teknika eta praktika uztartuz. Kategoria bakoitzean dagozkion gaiak aztertuko dira, eta entrenatu eta gero igerilekuetara joango dira.

SAKANAKO XXIV. IBILALDI HANDIA

2013ko Apirilaren 27a
Goizeko 6:00etan: Luzea
7:00etan: Motza

Izenak ematea apirilak 1etik 24ra gure web orrialdean

Irurtzun · Iratxo Elkartea www.iratxoelkaratea.com email: iratxomendi@gmail.com

Logos of sponsors: Iratxo Elkartea, IBA, SURA, Koroia, can, GARA, berria, GUBIXO.NET, beleixe, etc.

BAT, bertso afari txapelketa

Gaur, ostirala, 21:30ean Etxarri Aranazko Karriestu elkarte

Laugarren urtez Euskal Herriko Bertso Afari Txapelketa jokatu da Etxarri Aranazten. Karriestu elkarteak herrian pixkanaka gora doan bertsozaleatasuna sustatu nahi du txapelketa horrekin. Gaurko joan den urteko txapelketako irabazle Julio Soto deitu du txapela

defendatzera. Berarekin batera lehiatuko dira: Maddi Ane Txoperena (Hendaia, Lapurdi), Amaia Iturrioz (Urretxu, Gipuzkoa), Oier Arbina (Agurain, Araba), Arrate Illaro (Getxo, Bizkaia), Egoitz Gorosterrazu (Ituren, Nafarroa) eta Julio Soto (Gorriti, Nafarroa). Herrialde ezberdinetako bertsolariak gonbidatuz Euskal Herriko lurraldeatasuna irudikatu nahi izan dute antolatzaileek.



bazterretik

Ibai Hernaiz

Ai eguzkitxo, eguzkitxo...

Noiz ikusiko zaitugu gurean eguzkitxo? Aspaldian elkar ikusi gabe bai. Gureraetorri izan zarenean zitu bizian alde egin duzu berriz, eta jada zure gertutasuna eta goxotasuna sentitzeko irrikan gaude. Egia da bai, gustura egon ohi garelako Hodei, Eburne eta Euriarekin, eta guztiz beharrezkoak dituela gure koadrilak bere osotasunean bete ahal izateko. Baina Eguzkitxo... Atzerrira joan behar izan al duzu lana bilatzera? Sakanan lana bilatzearena badakigu zaila dagoela, eta ez izan oraingo esperantza gehiegirik hau epe motzean aldatuko denik (honi buruz hitz egiteko lerro gehiago beharko genituzke). Teleberriaren ondoren iragaritzen duten atalean ikusi izan zaitugu noizean behin. Baina beti penintsularen hegoaldean ibili ohi zara. Maiz ikusi izan zaitugu Kanariar irlen inguruan, eta norbait entzungenion ere, azkenaldi honetan soilik Almeria aldean egon zarelako. Haizearekin batera oporretan... ez gaituzu maite eguzkitxo? Gaizki portatu gara zurekin etorri nahi ez izateko? Esaguzu zerbait mesedez.

Negua hotza izaten dagurean, baina zure presentziak ere poztu egiten gaitu noizean behin. Baina aurtengoan ez dakigu haserre zauden gurekin edo Hodeiarekin... Zeozer gertatu al da zuen artean? Espero dut laster konpontzea, elkarrekin hitz egin ezazue mesedez eta berriz ere adostu zaitzete. Ez da beharrezkoa batek alde egin behar izatea bestea gurean egon ahal izateko. Biok egon zaitzete gure artea. Lehen ere egin izan duzue. Eguzkitxo, Eguzkitxo... gure artea bueltatu zaitzete eta argitu itzazu gure egunak.

Festei eusteko, jaialdia Dorraon

Larunbat gauerdetik aurrera Asto rock: Maritris, Lady tripi eta Josu Jon y mas taldeekin jaialdia. Arratsaldean, Motxila 21 taldea ere ariko da

Agorrilaren erdialdean lau eguneko ospakizunak izaten dira Dorraoko festak. Krisia dela eta egunero dantzaldia ordaintzeko adina diru ez zegoela eta festak egun bat gutxiagorekin gelditzea pentsatzen hasi ziren batzuk. Hori gertatu baino lehen jaialdi bat antolatu eta festak bere horretan mantentzeko diru ateratzea

bururatu zitzaizkien batzuei. Horretaz gain, ateratzen denetik Iñaki Marin presoaren senideei ere bidaletako gastuetarako dirua emanen diete.

Izena eman behar eta Asto Rock izena jarri diote larunbateko egitarauari. Rock jaialdi bat zena, zabalduz joan zen egitarau osatua osatuz. Esaterako Iban Resano aizkolaria Zumarragako gizon proba taldearen kontra neurtuko da. Dorrobarrak 3 oin biko eta zutik dagoen 45 ontzako enborra moztu beharko ditu.

Egitaraua

16:30ean Aizkolaria & gizon proba.

18:00etan Iruñeko Batukada.

19:30ean Motxila 21 taldearen kontzertua.

22:00etan Afaría elkarte.

00:00etan Kontzertuak: Maritris, Lady tripi eta Josu Jon y mas.

Zumarragarrek, berriz, 42 plaza egin beharko dituzte.



Salsakana

Saltsa dantza maite dutenen topaketa egingen da bihar Altsasun. Batxata eta Kubako saltsa ikasteko doako tailerrak izanen dira

Salsakana topaketan saltsa eta batxata moduko dantzak maite dituzten pertsonak bilduko dira. Laugarren urtea da Salsakana antolatzen dena. "Harrera ona izan du eta jendeak ikastaroetan ikasitakoa erakusteko modua da". Halako topaketak Elizondon eta Iruñean ere egingen dituztela azaldu digu Juanan



Palomok, irakasle altsasuarrak.

Kaixo jatetxean izanen diren bazkari-afarian 50etik gora pertsonen izena eman dute. Bataren eta bes-

tearen ondoren dantzari ekinen diote. Palomok esan digunez, Arbizun ikasten duten dozena batsakandarrekin batera, Iruñea, Elizondo,

Gasteiz eta Logroñoeko jendea bilduko da dantzara. 21:00etan, gainera, plazan animazioa iragarri dute.

Doako tailerrak

Askotan galdetu izan diote Palomori Altsasun zergatik ez dituen dantza eskolak ematen. Jendearen erantzuna ezagutzeko aukera izanen du bihar. 12:00etatik 13:00etara Diego Martinez dantzari profesional argentinarrak batxata ikastaroa eskainiko du. Eta 13:00etatik 14:00etara Palomok berak eta Vanessak kubako saltsako pausoak erakutsiko dituzte Labadero eraikinean.

nerecenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA (Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

Kirol-elikadura
Elikadura arazoak
Nutrizio-hezkuntza

R.P.S. N° 272/04

DIM 2 BOXER

TXIKITXO
haurren arropa eta lentzeria

COTON 3D FLEX

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

BUJANDA
okindegia

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

Oilategietako animalien pentsua 10 kiloko poltsetan

ABERE INSTALAZIOAK

TUBEL
L'engagement qualité!

Futbolisten bizipenak umorez kontatuta

Gaur, ostirala, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean



Conferencias de un futbolista bakarriketa eskainiko du gaur Zuhaitz Gurrutxaga futbolari eta musikariak. Besteak beste Errealeko, Rayo Vallecano eta Real Unioneke jokalaria ohia da Gurrutxaga eta bere futbol ibilbidean bizitako benetako anekdotak kontatuko ditu, guztia umore puntu batekin azalduta. Irurtzungo kultur etxean normalena futbolari batek kontatzen ez dituen istoriak azalduko ditu Gurrutxagak bakarriketan.

Bere musika taldearen, Vanpopel-en emanaldietan kantua alde aurretik umore ikutuarekin azaltzen zituen eta jendeak gustuko zituela ohartuta animatu zen Gurrutxaga bakarriketa egitera.

Idazle gaztetxoak letra sendoz

Euskara Kultur Elkargoak (EKE) antolatutako VII. mikro-ipuinen lehiaketak bi aipamen berezi utzi ditu Sakanan. Mattin Petriati Berastegiren *Gazte txartela* eta Itziar Razkin Lopez de Uralderen *Bisita narrazio laburrak* dira aipamen eskuratu dutenak. Biak ere DBH1. mailan daude, Andra Mari ikastolan. Epaimahaikokide Inma Errea, Toño Muro, Aingeru Epaltza eta Angel Erroren ustez "sari-tuak gertatzeko nahikoa maila eta merezimendua" bazuten.

EKEk Erronkarin eta Lodosan eginen ditu sari banaketak. Ekainean, bestalde, Iruñeko liburu azokan ipuin irabazleen liburuxka jendaurrean aurkeztuko du.

Etxarrin geldialdia eginen du batBIRAlauk

Euskaltzaleen Topaguneak batBIRAlauk, euskal kulturaren Nafarroako zirkuituaren bosgarren edizioa antolatu du. Kalitate eta formatu handiko euskarazko lau ikuskizun eskainiko ditu Nafarroako beste horrenbeste herritan. Zirkuitua maiatzaren 24an itxiko da Etxarri Aranazko kultur etxean. Hara hurbiltzen direnak *Lingua nabajorum* antzezlanak ikusteko aukera izanen dute.



Ska eta punk-rocka Etxarrin

Larunbatean, 23:00etan gaztetxean



Donostiako Skaiketaren taldeak doinu beroak ekarriko ditu Etxarri Aranazko gaztetxera bihar gauean. *Ahots Gabekoen Ahotsa* izenburuko diskoko kantuak aletuko dituzte eszenatokitik. Eta haiekin batera Iheskide taldeko kideak ariko dira. Elorrikoek punk-rock doinuak aletuko dituzte.



Ehunzango, milaka doinu



Etzi, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Pasadas las 4 konpainiak *Ehunzango baten ipuinak* antzezlanak ekarriko du. Luisak eta Marisak negu hotzaren erdian, basoan, kutxa bat opatuko dute. Han barruan Tramonta-

na Rosanak bere lagun ehunzangoari oparitu nahi dizkion makina bat galtzetin daude. Ehunzango ez da inondik ageri eta galtzetinak bereziak dira. Iortiar hurbiltzen direnak antzezlanak eta musika nahasten dituen emanaldi ederraz gozatzeko aukera izanen dute.

Ijito inspirazioko dantza ikuskizuna

Larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean

Horixe da Maria Legardaren dantza konpainia nafarrrak Altsasura bihar ekarriko duena. Astelehenean ospatu zen herri horren nazioarteko eguna, baina ijitoak 1435eko apirilaren 27an iritsi ziren Olitera. Jakin denez, herri noragabe bateko kideak ibaiertzeko makalen azpian, zubipeetan eta utzitako gotorleketan kokatu ziren, eta bizirik eutsi zieten "galdugordearekin", intuizioarekin, zolitasunarekin eta askatasunarekin lotutako hainbat ezaugarri.

Horretan oinarriturik Maria Legardaren konpainiak *Nevo Drom* ikuskizuna ondu du. Espektakuluak ijitoei beren ibilbide historikoan laguntzen dien iratxoaren baitan sartuko gaitu, zuzeneko musikaren, dantzaren eta ikus-entzunezko antzerkiaren bitartez. Betiere, testuinguru flamenkoan. Taula gainean



profesionalak eta ez direnak ariko dira.

Escena dantza jaialdia

Eduki eta iraupen aldetik, aurtent dantza jaialdia handitu egin da eta Nafarroa Dantzan proiektuaren baitan txertatu da. Azken horren asmoa da dantza eskaintza urte

guztian bermatzea Nafarroan, jarduera osagarrien bidez beste diziplina batzuekin lotuz. Escena dantza jaialdia martxoaren lehen hiru eta maiatzaren 26ra arte luzatuko da. Foru komunitateko 11 konpainiak 25 herrietara bere emanaldiak eramanen dituzte.

Sakanak hartuko dituen hiru

Nevo Drom ikuskizuna

Jatorrizko ideia: Maria Legarda, Angel Ocray.

Zuzendaria: Nuria Legarda.

Musika: Angel Ocray, Rafael Borja, Jesus Carbonell.

Koreografia: Maria Legarda, Rubén Martín.

Bidea: Iosu Zapata.

Soinua: Global Event eta Efectos.

Dantza: Maria Legarda, Ruben Martín.

Ahotsa: Angel Ocray, Miguel Jimenez.

Gitarra: Rafael Borja, Jesús Carbonell.

Perkusioa: Iñaki Vazquez, Francisco Galindo.

Biolina: Claudia Oses.

Kontrabaxua: Txuma del Río.

Jantziak: "Son de Flamenca".

Laguntzaileak: Bernardo Vazquez, Eneko Jimenez, Ion Muñoz, María del Mar Hidalgo, Jimena Ripa, Patricia Blazquez, Myriam Velasco, Beatriz Rodríguez, Ana La Fuente, Alba Jimenez, Andrea Jimenez, Cristina Hernandez, Juan Carlos Jimenez.

dantza ikuskizunetako lehena da biharko Altsasukoa. Heldu den ostiralean Etxarri Aranatzeko eta igandean Irurtzunen dantza saioak izanen dira.

APIRILAK 14, IGANDEA - 17:00

EHUNZANGO BATEN IPUINAK

PASADAS LAS 4

FAMILIARTEKO ANTZERKIA

Frontoiko zehazketak: z.g. 248.000 - telefono: 948564272 - iortia@altsasu.net - www.facebook.com/iortia

APIRILAK 13, LARUNBATA - 20:30

NEVO DROM

COMPAÑIA NAVARRA MARIA LEGARDA

Escena programari esker, aurtent dantza flamenkoarekin dugu zita.

DANTZA

LA O-BE-MOJA, LA FLORENCIA DE LA O-BE.

5€

DJANGO

OSTIRALA IGANDEA

12 22:00 14 20:10

Sorretarik salgai: leihatilo - 012 - entrados.com

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 33%	euria: 15%	euria: 5%	euria: 15%	euria: 20%	euria: 10%	euria: 10%	
Min: 6 Max: 15	Min: 9 Max: 19	Min: 11 Max: 24	Min: 9 Max: 17	Min: 7 Max: 16	Min: 6 Max: 21	Min: 8 Max: 23	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	21.7	-0.2	45.5
Altsasu	17	1	36.2
Aralar	10.8	-4.7	16.6
Urbasa	9	0	11.1

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
☾	☽	☾	☽
18	25	2	10

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

komunikazio zerbitzu profesionala

gertu+euskaraz

Guaixe KOMUNIKAZIOA

Foru plaza 23-1

31800 Altsasu (Nafarroa)

948 564 275 / 948 562 107

argi@guaixe.net / publi@guaixe.net

>> 11 galdera

Olatz Aldasoro

Ölatz artwork

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



- 1.- Arte Ederrak ikasi dituzu. Gainera, web diseinatzailea zara eta diseinu grafikoko lanak egiten dituzu. Arte Ederrak lizentziatura bukatzerakoan diseinu grafikoa eta web diseinua ikastea erabaki nuen. Bukatu nuenean berehala hasi nintzen Guaixen maketatzaile bezala lanean. Bi urteen ondoren Aldor Interneten web orriak diseinatzen hasi nintzen. Dena irudia da eta zerikusia dauka.
- 2.- Noiz erabaki zenuen Ölatz artwork proiektua martxan jartzea? Beti diseinatu izan dut nire kontu. Orain ez dudanez inorentzako lan egiten, azkenean pentsatu dut aurrera egitea eta nire kabuz enpresa jartzea.
- 3.- Zer moduz doa? Denboraldiaren eta beharren arabera. Azken lanak izan dira Vendetta taldearen diskoaren diseinua, kartelak, web orria; irudi korporatiboa, azken finean. Enpresa desberdinentzako lan egin dut. Brigada Improductiva Iruñeko taldearen diskoaren diseinua egin dut ere. Etortzen dena egiten dut: logotipak, web orriak, bisita txartelak, kartelak, edozein diseinu...
- 4.- Pixkanaka, gauza berriak. Ezin duzu gauza batean bakarrik zentratu. Azkenean bezeroak behar dituzu eta ezin duzu etxean itxoiten egon. Kalera joan behar zara eta gauzak proposatu. Niez naiz diseinatzailea bakarrik. Lau edo bost lanbide desberdin dauzkat. Photoshop ikastaroak eman izan ditut, Kitz Mendiola-ekin Sormen Tailerrak ematen ditugu eta Itxaso Albarrazinekin erakusleho apainketa enpresa bat sortu dugu.

- 5.- Bezeroek argi dute zein irudi nahi duten? Bezeroek ez dakite zer nahi duten. Esaten dizute: "horrelako zerbait nahi dugu". Baina zu zara diseinatzailea eta zuk jakingo duzu nola egin". Askatasuna ematen didate. Nik nahi dut haiek gustura gelditzea; haien enpresaren irudia izango da, eta nahi dituzten aldaketak egingo ditut. Baina normalean pozik gelditzen dira.
- 6.- Arte Ederrak ikasterakoan, etorkizunean pentsatzen zenuen? Ez. Bokazioagatik egin nuen. Atzera eginez gero, berriz egingo nuke; buruz, gainera.
- 7.- Krisi garaian garrantzitsua da ikasten jarraitzea? Bai. Ikastea edo behintzat eguneratua egotea. Teknologia berriak eta internet kontrolatu behar dituzu, bestela, jai duzu.
- 8.- Zergatik erabaki zenuen zure kabuz jartzea? Krisiari irtenbidea ematea izan daiteke? Nike ezin dut geldirik egon. Nire izaera horrelakoa da. Eta argi daukat inorez dela lan bateskaintzera etorriko. Orduan, ez duzu beste erremediorik, zure kabuz jartzea baino. Nik uste irtenbide bakarra dela. Ez zure kabuz jartzea, baizik eta esatea nik hau ikasi dut eta hau dakit egiten, orduan honekin hasi-konaiz eta egurra emangodiot. Oso garrantzitsua iruditzen zait jendearekin harremanetan egotea. Jende ezberdinarekin elkartzea eta gauza ezberdinak egitea.

- 9.- Zein izan da momentu zailena? Eta politena? Zailena da bajoia ematen dizunean. Pentsatzen duzunean ea hainbeste esfortzuz eta hainbeste orduk merezi duten. Baina ezin duzu horrela pentsatu, bestela zirkulu horretan sartzen bazara deprimitzen zara eta ez du ezertarako balio horrek. Pentsatu behar duzu: lana egiten badut eta mugitzen banaiz azkenean zer edo zer aterako da. Politena da jendeak esaten dizunean zure lana gustatu zaiola.
- 10.- Erakunde laguntza izan duzu proiektua martxan jartzeko orduan? Cerdana-Garalurrera joan nintzen eta Miriamek lagundu zidan. Aholkuak eman zizkidan eta nola egin nezakeen azaldu zidan. Baina, gutxi gehiago. Gainera, diru laguntza gutxi zeuden eta 30 urte baino gehiago ditudanez gutxi egin nezakeen.
- 11.- Proiektu berri batekin hasiko zara, ez? Bai. Itxaso Albarrazinekin batera erakusleho apainketa enpresa bat sortu dugu: Sotz. Oraindik prestatzen gaude. Ikusten genuen Sakanan ez dela gehiegi zaintzen erakuslehoen apainketa. Eta pentsatu genuen agian gaur egun dende beraien aurpegia berri behar dutela eta erakargarriagoak izan behar direla. Orduan, diru asko gastatu gabe, material xume eta merkeekin zerbait egin dezakezu. Garrantzitsuena ideia bat izatea da.

Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixea egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea